



Tradition 2.1

Korrontzi

Baga-biga, 2013

Sustraiako musika: ikuspegi berritzaitetik mundura

NAZIOARTEKO jaialdi eta txapelketan parte hartzeko aukera eskaini zion *Getxo* lanak (2008) Korrontzi taldeari. Urte hauetan, trikitiaren esparrua oinarri hartu eta Agus Barandiaran eta bere taldekideek Euskal Herriko musika tradizionalari gaur egungo ikuspuntua emanez, munduko hainbat herrialdeetako artistekin oholtza partekatzeke zortea izan dute. Ibilbide honetan egindako lagun horietako asko topatuko ditugu *Tradition 2.1* diskoan: Justin Val, Tenores di Neonelli, Phil Cunningham, Jesús Cifuentes (Celtas Cortos)... Hirurogei musikaritik gora izan dira euren artea erakutsi dutenak ezohiko lan kosmopolita honetan, eta gure artean ezagunak diren hainbat artista ere aritu dira zerrenda luze horretan: Mikel Markez, Alex Sardui, Mikel Urdangarin, Garikoitz Mendizabal...

Baga-Biga etxeak 3 urte behar izan ditu proiektu hau argitaratzeko, koordinaketa lana ez baita nolana hikoia izan. Kontuan izan behar da 26 grabazio estudio erabili direla diskoaren grabaketarako (Vigo, Madril, Manchester, Ramallah, Zimbabwe....) eta ahalegin handia egin dutela munduko hizkuntza eta soinuaren ekarpenean. Lan honi eskainitako orduak ere inbertsio ekonomiko handia izan da ekoizleentzat, luxuzko edizioa kaleratu baitute. Hamasei kantuz osatutako lana disko-liburuxka formatuan aurkeztu zaigu eta musikarien zerrenda, kanten azalpenak edota instrumentuak ezagutu ahal izateko hiztegia ere kontsulta dezakegu. Guztia, lau hizkuntzatan: euskaraz, gaztelaraz, frantsez eta ingelesez.

Honen guztiaren osagarri, bi klip erakusten dituen DVDa: *Sardos*, 2013an Huarteko (Nafarroa) Arte Garaikideko Zentroan Oinkari dantza taldearekin batera grabatutakoa, eta *Aupa Maurizja*, 2012ko Bilboko Aste Nagusian Ygor Yedra & Oksana Kucheruk dantzariarekin zuzenean grabaturiko emanaldia.

Hamasei abesti. Hamasei istorio, azken finean. Bakoitzak du bere iturria, bere sorrera eta bere garapena. *Isukitzeko aldia* da disko honetan aurki dezake-

kegun abestirik bitxienetakoa. Arreta ematen du trikitilariari eta, bide batez, trikitiari eskainitako kantu honetan soinu txikirik ez entzuteak. Trikitiaren doinuaren alaitasunetik urruntzea izan da egilearen nahia, eta melankolia ukitua emango zion soinua Israelgo Liron Man-ek jotzen duen *Handpans*-en topatu du. Tomas Arrizabalaga (Tomas Sitzes) Euskal Herriko trikitilari onenetakoari eskainitako kanta da. Trikitilari zaharrak 1975ean Bilboko Herri Irratian egindako bere azken elkarrizketa hartzen du oinarri, eta bere ahotsa da gidari. Elkarrizketa honetan trikitiaren etorkizunari buruzko kezka agertzen zituen, bere ezaguerak oinordekorik ez izatearen zalantza. Zorionez ez da horrela izan. Beste hainbat artistak bezala, tradizio hori bizirik mantendu ahal izateko ahaleginak egin ditu Agus Barandiaranek.

Munduko soinuak hauspo txikiarekin uztartuz, kultur ugaritako musikarien topaketa liluragarria lortu du Korrontzi taldeak. Zenbait estilo fusionatzean nahasketa bitxiak sortu dira: Portugaleko Fadoa porrusaldarekin, italiar musika arin-arinarekin, galiziako soinuak biribilketarekin edota flamenkoa fandangoarekin, esaterako. Aipaturiko azken estilo honetako bi kantetan –*La Foule* eta *Flamendango*– sari mordoa (horien artean hiru Grammy) jaso duen Javier Limonek jotzen du gitarra. Artista, konpositore eta ekoizle honek Agus Barandiaranen abesti guztiak ekoitzi ditu eta koordinazio teknikoaz ere arduratu da.

Udaberrian Madril,artzelona eta Galizian aurkeztuko dute *Tradition 2.1* diskoa, eta, euren musika ahalik eta gehien zabaltzeko saiakeran, aurtan ARC Music (Munduko Musikak) Erresuma Batuko etxearekin ekoizteko asmoa dutela adierazi dute.

Trikitiak etorkizunik izango ez zuela penaturik agertu zen Tomas trikitilari harro azalduko zatekeen bere oinordetza eta, era berean, gure kultura erakutsiz munduan barrena dabilela ikusi izan balu. ■



Olatz Korta